



Egia bizirik

EGIAKO AUZO ELKARTEA

30. ZENBAKIA

2020 ABENDUA

Korreo elektronikoa:
egiabizirik@gmail.com

Elkartearren Twitter kontua:
<https://twitter.com/EgiaBizirik>

Instagram:@egiabizirik

egiabizirik@gmail.com



Zorionak

eta

Urte berri

ON!!



EDITORIAL

Esan beharrik ez da aurten zerbait berezia eta azpimarratzeko egon bada, hori koronavirus madarikatua izan dela. Horrenbeste hilabete igaro ondoren pandemia hasi zenetik, oraindik ere harritu egiten gara bakoitzak besteari aurpegian musukoa jantzia ikusita. Zalantzaz jartzen ez genituen horrenbeste gauza hankaz gora geratu ziren egun batetik bestera. Hedabideetako jakintsuek eta politikariek, oro har, asko hitz egiteaz gain funtsezko gauza gutxi esan ziguten. Haien ezjakintasuna onartu beharrean gorputzean beldurra sartu izan digute, erotu ez gaituztenean neurri kontraesankor ugariekin. Askoz gehiago sinistuko genituzke egoerari aurre egiteko gaitasun gutxi dutela onartu izan balute hasieratik.

Edozein modutan, birusak bi gauza argi utzi izan dizkigu. Lehena, azken urteetan gutxi inbertitu egin dela gauza garrantzizkoen eta, aspalditik salatu izan diren murrizketak erabat kaltegarriak zirela frogatuz. Osasungintza, irakaskuntza, menpekoen zaintza eta gizartearen ongizatea ahalbidetzen dituzten tresnak arlo publikotik enpresari pribatuen eskuetara aldatu dira azken urteetan, eta enpresari pribatuen helburua dirua irabaztea besterik ez da. Aurrekoaren ondorioz, zerbitzu publikoen kalitateak okerrera jo du, gai-xotasun honek argi erakutsi bezala.

Osakidetzako lehen arretako anbulatorioetan gaixo guztia egoki artatzeko langile eta baliabide gutxi daudela ikusi dugu bat-batean, beste lekuetako berri izan badugu ere, auzoan lehen eskutik ikusi izan dugu modu nabarmenean. Jende asko anbulatorioan artatu gabe gelditu izan da, sendagile eta erizainekin egindako hitzorduak atzeratu egin dira, Bertako profesionalek arreta emateko benetako zailtasunak eduki izan dituzte, eta hau ez da haien erruagatik izan, noski, ahal zutena egin baitute zailtasunak gaindituz.


Ustekabeen konfinamendua ezarri ziguten, eta denok etxeen harrapaturik gelditu ginen, tartean haurrek eta nerabeak. Egun batetik bestera irakasleek modu berriak asmatu behar izan zituzten: irakaskuntza online, interneten erabilera intentsiboa... Familia askok ez zuten horretarako baliabiderik, eta irakasleek prestakuntzarik ere ez kasu askotan. Administrazioak bitartekoak jarriko zituela agintzen zuen bitartean, egoerak bere horretan jarraitzen zuen, eta irakaskuntzako langileen borondateari eta lan esker-gari esker iritsi ginen ikasturera ahal zen moduan.

Hortik aurrera ikusi izan dugu gertatu dena: inprobisazioa, bete gabeko promesak, kontraesanak, eta sektore ugaritan langileen egoeraren okertze nabaria. Bizitza da handiena, baina bizi-baldintzek okerrera egin dute.

Pandemiak bigarren gauza bat erakutsi digu ere, askoz ere aberasgarria. Auzoko jendea, auzotar arruntak gai izan dira birus honi aurre egiteko. Baita gure artean zabalduta zeuden beste motako birusak ere, horrela, bizilagunak agurtzen hasi ginen, ordura arte gizarte individualista honetan ahaztu egiten ditugunak. Horrela ere ikusi genuen gure inguruaren existitzen den pobrezia-maila, etxebizitzak askotan pairatzen duten egoera tamalgarriak ezagutuz. Gure helduek bizi duten bakardadea lehen ez bezala ulertu genuen.

Egoera zailaren aurrean norbanakoek emandako elkartasunezko erantzuna bikaina izan bada, azpimarratzeko da ere elkarren artean antolatu den guztia gehien behar zutenak laguntzeko, auzoan berehala eratu zen zaintza-sareak erakutsi bezala.

Eta ospakizun kolektiboak egon dira ere, balkoi balkoi joan etorri diren abesti eta hitz solasak, inoiz baino gehiago antzeman dugulako bizitza elkarrekin gozatu beharra. Elkarrekin hartutako kaferik gabe utzi gaituzte, tabernetako berriketarik eta parrandarik gabe, jairik gabe. Baina pandemien gainetik birusen aurkako jai berriak asmatu beharko ditugu, ziur gaude Egian, birusak birus, elkarrekin ongi pasatzeko asmatuko dugula.



EDITORIAL

Casi todo el año ha estado marcado por el puñetero virus. Es para hacer pensar. Todas las seguridades, la estabilidad, la complacencia, en unas semanas quedaron patas arriba. Los medios de comunicación, los políticos, los tertulianos, todos esos que dicen que crean opinión se dedicaron a hablar y hablar. En vez de reconocer su ignorancia, su incapacidad para hacer frente a la situación, se han dedicado a decirnos cosas contradictorias, a atemorizarnos a todos. Y en buena medida han conseguido meternos el miedo en el cuerpo. Hubiera sido mucho más honrado reconocer desde el principio su ignorancia, la carencia de medios para hacer frente a la situación.

Porque el virus nos ha dejado dos lecciones bien claras. La primera es que en los últimos años se ha invertido muy poco en las cosas que más importan: salud, educación, atención a las personas dependientes. Poco a poco han ido dejando muchos servicios en manos de empresarios que únicamente tienen como objetivo el ganar dinero. Y los servicios públicos han bajado de calidad. La cosa se ha hecho evidente cuando se ha difundido la enfermedad.

De pronto hemos descubierto que la atención primaria de los ambulatorios de Osakidetza no tienen ni personal ni medios suficientes para atender a los enfermos. En el barrio ha sido clarísimo. Muchas personas no han podido ser atendidas en el ambulatorio, se han retrasado las citas con médicos y enfermeros. Y no ha sido por culpa de los profesionales de la sanidad. Todos hemos sido testigos de que han hecho lo que han podido.

Llegó el confinamiento. Todos en casa. Y los irakasles, de golpe y porrazo, tuvieron que inventarse sistemas para atender a los niños, que estaban en casa. Se hablaba de enseñanza one line, por internet. Muchos niños no tenían medios en casa. Los profesores no tenían preparación para enseñar así. Desde la administración se decía, una y otra vez, que iba a poner los medios necesarios para hacer frente a la situación. No era verdad. Una vez más todo se tuvo que hacer a base de voluntad, de entrega de los trabajadores de la enseñanza. Menos mal que tienen mucha voluntad...

Y, de ahí en adelante, lo que hemos vivido todos: improvisación, promesas incumplidas, predicar, predicar... pero poco dar trigo.

Si esa fue la primera lección, la segunda fue mucho más gratificante. La gente de barrio, la gente normal y corriente, ha demostrado que es capaz de aguantar este virus y muchos otros. Empezamos a saludar a nuestros vecinos, a los que desconocíamos hasta entonces. El virus nos hacía a todos más cercanos, más personas. Nos dimos cuenta de la pobreza de mucha gente que nos rodea, del hacinamiento en muchas viviendas. Comprendimos mucho mejor la soledad de muchos ancianos.

Ante estas realidades ha habido respuestas individuales estupendas, de solidaridad, de atención a los que más lo necesitaban. Ha habido también capacidad de organización, como lo demostró la red de ayuda que se montó.

Y ha habido también celebraciones colectivas, canciones de balcón a balcón.... Porque esta temporada, más que nunca, hemos vivido la necesidad de disfrutar de la vida juntos. Nos están dejando sin cafés compartidos, sin tertulias en los bares, sin fiestas. Y tendremos que inventar nuevas fiestas, a pesar de los virus. Nosotros apostamos a que en Egia somos capaces de disfrutar todos juntos, con virus o sin virus.

Osasuna kolokan

Aurtengo urteak erreflexio ugari sortu ditu.... Harro-tasuna eta ziurtasuna agertzen genuen gure osa-sun sistema publikoaz hitz egiten genuenean. Uni-versala, segura eta trinkoa omen zen. Baina, hala al da? Edo zen?

Nolatan bihurtu da hain hauskorra egun gutxi batzuetan? Eta nolatan galdu dugu lehen mailako arreta, hilabeteetan zehar, telefonoa bihurtu delarik osasunaren kudeaketa bidea?

Pandemiak argi erakutsi digu osasun sistemak ez duela malgutasunik, ez duela moldatzeko ahalmenik. Osasun langileen gainkargari esker mantendu izan du urteetan zehar. Orain, indarrak agortuak, jazoera berriei aurre egin ezzinean dabil. Pentsa ezina zen duela urte bete mediku-rik ez egotea anbulategi batean. Bainan errealitate gordina bihurtu da gure auzoan. Krisi hau pasatzen badugu ere, zerbait aldatu da gure ikuspegian. Zeintzuk dira ga-beziak? Hezkuntza sistemak sortzen ditu osasungintzarako langile nahikoak? Zein da gizartearren beharra?

Hausarketarako garaia da.



La pandemia nos ha mostrado las debilidades de nuestros sistemas de salud. Nos decían que la atención médica se hacía por teléfono, hemos visto el ambulatorio sin médicos. Nos hemos dado cuenta que antes funcionaba gracias al sobreesfuerzo de los trabajadores de Osakidetza. Pasada la pandemia hay que revisar la política sanitaria.

Egia Zeinuka Lenguaje de signos

Auozan pertsona gorrekin harremana erreztu eta hauen egoera ezagutzera emateko helburuarekin ekin genion, iada duela hiru urte, ekimen honi. Zeinu hizkuntza ikastaroak antolatzearaz gain, zein potea, tabernetan oinarrizko elkarritzetarako gidatxoak banatu, eta bestelakoak ere egin izan ditugu.

Pasa den ikasturtean, laroiei lagun inguru bildu ginen ikastaroetan eta ekimenen balorazio oso positiboa egiten dugu antolatzale, irakasle zein partehartzaileok. Ikasturte honetan, nahiz eta kopurua asko murriztu den, aurrera jarraitzen dugu, heldu zein ume, talde txikitak. Egoerak uzten digun neurrian, gorren errealitatea ezagutarazteko ekimenak antolatu, eta horrela, auzoan aniztasunari lekua egiten jarraitu nahi dugu 2021ean.

Ezin dugu ahaztu, ez dela hizkuntza bat soilik, gure errealitatea da, guzton parte da, eta bidea egi-ten segiko dugu.

Esta iniciativa tra-
ta de facilitar la
comunicación
con las personas sor-
das. Se han organiza-
do entre otras cosas
cursillos de lenguaje
de signos, poteo utili-
zando esta lengua...
Más de 80 personas
han tomado parte en
la las actividades.



Gora EGIA!

www.goraegia.eus webgune berria martxan da!

Auzoko eragileen dinamikak biltzeko atondu dugu dena 3 atal nagusietan:

- * Agenda, eragileen deialdien informazioa jasotzeko.
- * Zure Ahotsa, bertan iritzi artikuluak eta albisteak argitaratuko dira
- * Iragarki Taula, edo alegiazko merkatu bat.

Argitalpenak zuzenean norberak egin ditzake, adibidez Egia Bizirik kontu bat sortu du bere deialdiak eta ekitaldiak argitaratu ahal izateko.

Ekimena Alain Urizarrek eta Arkaitz Artola garatu dugu Egia Biziriken babesarekin.

www.goraegia.eus es la nueva agenda del barrio. En esta página web sabrás qué actividades hay en el barrio, podrás dar tu opinión y publicar tus anuncios.



Gordegia

Oraindik auzoko irudien artxiboa ez duzula ezagutzen? Bainan non bizi zara? Sartu interneten, idatzi "gordegia.eus" eta ikusiko duzu; harrituta geldituko zara: Egiako historia, jaiak, kirolak, lagun-kuadrillak, baserri zaharrak. Dena antolatua, ordenatua.

Gordegia egiten dugunoi argazkiak taldean ikustea gustatuko litzaiguke: kuadrillan, familian... Argazkiak ikusi, comentatu, elkarrekin gogoratu, eta ez bakarrik ikusi. Gordegia ez da ikusteko web-orri bat bakarrik; parte hartzeko gunea da. Zure argazkiak eta bideoak bidal ditzakezu. Ikusten dituzun argazkiak kritikatu ditzakezu, akatsak zuzendu, ematen den informazioa osatu, argazki bakoitzak historia txiki bat daramalako, agian zure bizi-tzaren parte den historia bat.

Aurten beste argazki-pilo bat bildu dugu, eta lan asko dugu oraindik egiteke: eskaneatu, ordenatu, dokumentatu. Bainan gauza gehiago egitera ere ausartu gara. Birusa agertu arren, ez gara kokildu. Auzoaren historiari buruzko hitzaldiren bat antolatu dugu, bi bisita gidatu Atotxa ingurura eta 2021ko egutegi bat zabaldzu dugu. Horrez gain, pandemiak atzeratu dizkigun beste hainbat gauza daukagu esku artean: argazki-erakusketak, hitzaldi eta solasaldi gehiago...

Gordegia bizirik dago eta guztiok parte hartzea espero du.

Jué todavía no conoces el archivo de imágenes del barrio? ¿Pero dónde vives? Entra en internet, escribe gordegia.eus y verás lo que es bueno: la historia de Egia, las fiestas, los deportes, las cuadrillas de amigos, los viejos caseríos.... Todo organizado, ordenado.

A los que hacemos Gordegia nos gustaría que las fotos se vieran colectivamente, en grupo: la cuadrilla, la familia... Ver las fotos y comentarlas, recordar juntos. Y no solo verlas. Gordegia no es solo un archivo para ver. Es un archivo para participar. Puedes enviar tus fotografías, tus vídeos. Puedes criticar las fotos que veas, corregir sus defectos, completar la información que se da. Porque cada fotografía lleva una pequeña historia. Una historia que a lo mejor es parte de tu vida.

Durante este año hemos acumulado un montón de fotografías más. Y todavía tenemos mucho trabajo pendiente: escanearlas, ordenarlas, documentarlas... Pero nos hemos atrevido a hacer más cosas. A pesar del virus hemos organizado alguna charla sobre la historia del barrio, dos visitas guiadas a la zona de Atotxa y hemos difundido un calendario para 2021. Y nos han quedado otras cosas que la pandemia nos ha aplazado: exposiciones de fotos, más charlas y tertulias...

Gordegia está vivo y espera que todos y todas participeis.



Teila

Urte bitxia izan da guztiontzat eta Teila Fabrika ere pandemiak harrapatu du bere lehen urtemugan. Bagoaz hala ere taldea handitzen eta gero eta gehiago gara egunerokoan elkarlan-eremuan batzen garenak; Setem Hego Haizea eta UP komunikazioa elkartu zaizkigu esterako 2020 honetan. Bainan guztia ez da lana izango eta aretoak ere ari dira bizitza hartzen. Asko izan zarete erabilera eman diozutenak; Gora Egia; Maioterren Sindikatua; Euskal Wikiliariak, Txalaparta... Eta mota ezberdinako jarduerak izan ditugu; auzokideen bilerak, liburu aurkezpenak, formakuntzak, tailerrak eta abar. 2021ean ere zuekin eta zuen proposamenekin espazioei bizitza ematen jarraitzeko gogoz gaude!



Gainera datorkiguuna La que nos viene

Eraikunta sektoreko empresa handiek jarraituko dute Egian dirua xahutzen, eta lan etengabeak izango ditugu auzoan datozen urteetan.

Udal artxibategia. Atotxan kokatu dute, eta, hori dela eta, gazte askok erabiltzen zuten kirol pista kendu egin dute. Lanak amaitutakoan berriro jarriko ote duten galdeztuta, erantzuna eezeko biribila izan da: ez da pistarik egongo. Artxibategia urtarilean zabalduko dute,

Iztuetako biaduktuko lanak jadanik hasita daude, eta hamalau hilabetez luzatuko direla aurreikusten da. Urteetan zehar zaindu gabeko azpiegitura izanik, orain, jakina, eraitsi besterik ez dago. Aldakonean egin nahi duten auzo berrirako sarbidea izango da, izan ere horixe da negozioa. Bitartean, trafiko-arazo ugariri aurre egin beharko diogu Mandasko Dukean, eta auzorako sarbidea eta irteera oztopatuta izango dugu.

Aldakoneako birstorte edo erregenerazioa deitu dutena, negozio biribila egiteko balio izango du. Plan Orokorean aurreikusita zeuden 50 etxebizitza berrien ordez, 300 izango dira. Onkologikoaren eremua hartu, San Antonio klinika (Osakan) eraitsi... Dirutza eramango dute Udalak eta Kutxa Fundazioak. Alokairu soziala bultzatuko balute sikiera, baina ez da hala izango. Babes ofizialeko legezko minimoa bete, eta gainerako espekulatzeko balioko du. Ez dakite noiz den hasteko, baina Udalean lehentasuneko proiektua omen da.

Tren geltoki berria. Lanak hasita daude dagoeneko. Momentuz, Mundaizko bidea moztu digute. Lau urte inguru beharko dituzte lanak egiteko. Atotxako lurrazpiko pasabidea itxi egongo da hilabete askotan. Gauza bat dela eta bestea dela, Udalean lortuko dute, bai, Egia isolatzea: Egia herria!

Mundaizko bidea konpontzeko, urbanizatzeko eta eraikin berriak egiteko datariak ez dago, baina hor beste "pelotazo" bat datorkigu.

...ETA EGINGO EZ DITUZTEN GAUZAK:

Auzoko gune altuenetan **igogailuak** jarri: Aldakonea, Konkorrenea, Ibaiak...

Plaza Haundiko estalpea berritu; iazko bukatuta egongo zela agindu zuten.

Atotxako kirol-pista berregin.

Loiolako zubi ondoko Astiñene baseria zaharberritu; eraikin babestua da eta erortzear dago.

Jakina, gauza horiek guziek ez dute dirurik ematen.

C reíamos que Egia era un barrio en el que ya se habían hecho todos los negocios posibles y que, por una larga temporada, nos dejarán en paz los grandes constructores.

Pues no. En los próximos meses y años Egia se va a convertir en una obra permanente. Nos van a cambiar el barrio de arriba abajo. Cuando terminen (si es que terminan) nuestro barrio será otro. Aquí tenéis algunas de las obras que nos vienen.

ESTO ES LO QUE VAN A HACER

El archivo municipal del Ayuntamiento. Lo han puesto en Atotxa, en la Plaza Blas de Otero. Para eso, nos quitaron la pista polideportiva que usaban cientos de chavales y chavalas. Preguntamos si al acabar la obra se iba a reponer la pista. La respuesta ha sido clara: No. El archivo se inaugura en enero.

El viaducto de Iztueta. Ha empezado ya. Van a tirar abajo el viaducto, van a hacer una rotonda.... Son (dicen) catorce meses de obra en los que el tráfico por duque de Mandas va a ser difícil. Durante muchos años se ha abandonado el mantenimiento de la estructura del viaducto. Claro, ahora hay que derribarlo. Nosotros lo tenemos claro: esta obra es para mejorar el acceso a Aldakonea, que es lo que de verdad les interesa. Es donde está el negocio: casas para ricos.

Lo que llaman la "regeneración" de Aldakonea. Esto sí que les interesa. En el plan General de san Sebastián había pensadas unas 50 viviendas en la zona (en el solar del Oncológico). Ahora van a por 300 viviendas. Ocupan la zona del Oncológico, derriban la antigua clínica San Antonio (Osakan)... Habrá el mínimo exigido de viviendas de protección oficial, nada más. Pero el terreno es, prácticamente todo, del Ayuntamiento (Osakan, por ejemplo) y de la Fundación Kutxa. La Fundación, en teoría, no está hecha para ganar dinero. Pero aquí se va a aforrar. Nosotros pensamos que, si se hacen viviendas, se deben hacer de alquiler social, con alquileres que la gente pueda pagar. ¿Cuándo empezarán la obra? No lo saben, pero nos han dicho los concejales que a ellos este proyecto es el que más les interesa.

La estación de tren de Atotxa. Han empezado la obra. De momento han cerrado la carretera de Mundaiz y están derribando algunas edificaciones. Van a estar de obras casi cuatro años. Para el barrio lo peor será que, durante bastantes meses, cerrarán el pasadizo de Atotxa. En el ayuntamiento no parecen preocuparles gran cosa los problemas que tengamos para llegar a Egia.

La urbanización y edificación del camino de Mundaiz. Todavía no tiene fecha, pero ahí hay otro peñotazo inmobiliario importante.

ESTO ES LO QUE NO HACEN:

No hablan de ascensores en las zonas altas del barrio: Aldakonea, Konkorrenea, Los Ríos....

No mejoran la cubierta de Plaza Haundi. Prometieron que la harían para el año pasado...

Quitan la pista polideportiva de Blas de Otero...


El caserío de Astiñene, edificio protegido por las ordenanzas, abandonado, casi en ruinas,
Claro, estas cosas no dan dinero



Plaza Haundiko estalpe berria eta eraberritzeko obrak / Obra de nueva cubierta y reforma de plaza haundi

Aurreko aldizkarian esan genuen bezala udalak aurreikuspenen arabera Plaza Haundiko estalpe berria eta plaza eraberritzeko obrak 2019ko otsailean hastekoak ziren, lanak egiten hasteko ordea plaza azpian dauden garajeetako jabeen baimen batzuk behar zituen udalak, baimen horiek udalak bilera egin zuen garajeetako jabeekin 2019ko urrian (aurreikusitako obra hasiera baino 10 hilabete beranduago), garajeetako jabeek ordea ez zituzten obra hasteko beharrezkoak ziren baimen horiek eman udalarekin zitzuten desadostasun batzuengatik, auzo elkartean hau jakin genuenean garajeetako jabeekin bilera bat izaten saiatu ginen baina Covid-19 tarteko oraingoz ez dugu lortu, lortu arte ez dugu etsiko eta egoera bideratzeko bitartekari lanak egiteko prest gaude, alkateri ere bilera eskatu diogu Plaza haundi eraberritzeko obrarekin gauzatzeko bere konpromezua berrestu dezan eta beharrezko neurriak hartu ditzan.

Tal y como dijimos en la revista anterior, las previsiones del Ayuntamiento eran que en febrero de 2019 comenzaran las obras del proyecto de nueva cubierta y reforma de Plaza Haundi pero para ello era necesario una doble autorización por parte de los propietarios de los garajes situados debajo de la plaza, el ayuntamiento se reunio con los propietarios de los garajes en octubre de 2019 (diez meses después del inicio de las obras previsto), sin embargo, los propietarios de los garajes no dieron los permisos necesarios para iniciar la obra por discrepancias con el Ayuntamiento, cuando se conoció esta situación la Asociación de Vecinos intentó mantener una reunión con los propietarios de los garajes para tratar de desbloquear la situación pero debido entre otras cosas al Covid-19 por el momento no lo hemos conseguido, por nuestra parte seguiremos hasta conseguirlo y estamos dispuestos a mediar para encauzar la situación, en este sentido hemos solicitado una reunión con el alcalde para que confirme su compromiso con la obra de reforma de Plaza Haundi y adopte las medidas que sean necesarias.



Egiako Merkatarien Elkartea 2016ko irailean eratu zen, auzoko merkataritza sektorearekin lotutako alor guztietatik dinamizatzeko helburuz: hirigintza, mugikortasuna, prestakuntza, ekintzaileta, digitalizatzea... eta, jakina, erakundeekiko harremana.

Arlo horietan guztietan lan egiteaz gain, merkataritza dinamizatzeko hainbat ekintza garatu dugu lau urteotan:

- BradEgia, gure denden kanpoaldean gure produktuak erakusteko postuak jarriz.
- Bezeroen leialtasuna lortzeko kampainak, erosketa-baleak zozkatuta, poltsak banatuta eta, iaz, elkarteko dendetan gastatzeko 1.000 euroko sari bat zozkatuta.
- Sentsibilizazio-kampainak: hainbat silueta jarri zen auzoan, gure auzoko bizilagunak auzoan bertan eroasteak duen garrantziaren inguruko hausnarketa egitera bultzatzen zuzendutako mezuekin (Nik Egian erosten dut, eta zuk?)
- Eguberrieta kampainak. Gure bezeroen artean saskiak oparitu eta gure komertzioak identifikatzen gaituen elementu batekin apaindu ditugu kampaina horietan.

Konbentzituta gaude oso garrantzitsua dela auzoko beste eragile batzuekin sinergiak ezartzea; horregatik, Aitor Ikastolarekin edo Porrontxo Jaietako ere kolaboratu dugu.

Empark zerbitzu-enpresarekin, bestalde, lankidetza-hitzarmena sinatu genuen, elkarteko komertzioek haien bezeroei ibilgailua Atotxako aparkalekuaren doan uzteko 30 minutuko txartelak oparitzeko.

37 bazkide gara gaur egun. Baino kopuru hori handitza nahiko genuke, izan ere, zenbat eta gehiago izan, orduan eta handiagoa izango da gure jarduerak auzoan lortuko duten eragina.

Eguberrieta kampaina

Auzoko 30 komertzioek hartzen du parte Gipuzkoako Merkatarien Federazioko kide den HEGIAN Egiako Merkatarien Elkartearren Eguberrieta kampainan.

Aurten inoiz baino gehiago eman nahi dizkiegueskerrak gure bezeroei, hor egoteagatik.

Izan ere, gure establezimenduetako pertsianak berriro altxatu genituenetik, haien babesea sentitu dugu, eta horixe sentitzen jarraitu nahi dugu.

Horregatik, aurtengo Karpainan, parte hartzen duen komertzio bakoitzeko saski bana oparituko dugu, baita 50na euroko 10 erosketa-bale ere.

Gainera, bideo bat egin dugu, gure komertzioen ibilbideari balioa ematen diona: EGIAZKO MERKATARITZA. BIZILAGUNAK BABESTU

Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzitzak, Donostiako Sustapenak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako kampaina.

La Asociación de Comerciantes de Egia, se constituyó en septiembre del año 2016, con el objetivo de dinamizar el comercio del barrio desde todos los ámbitos relacionados con el sector: urbanismo, movilidad, formación, emprendimiento, digitalización... y, por supuesto, la interlocución con las distintas Instituciones.

Además de todas estas áreas, en estos cuatro años hemos desarrollado distintas acciones de dinamización comercial:

- BradEgia, colocando en el exterior de nuestras tiendas puestos con nuestros productos.
- Campañas de fidelización con sorteos de vales de compra, reparto de bolsas, el sorteo el año pasado de un premio de 1.000 € a gastar entre las tiendas asociadas
- Campañas de sensibilización: con la colocación de siluetas por el barrio con mensajes dirigidos a provocar entre nuestros vecinos y vecinas una reflexión acerca de la importancia de comprar en el barrio (Nik Egian erosten dut, eta zuk?).
- Campañas de Navidad, en las que hemos regalado cestas entre nuestros clientes y decorado nuestros comercios con un elemento común que nos identifica.

Convencidos de la importancia de establecer sinergias con otros agentes del barrio, también hemos colaborado con la Ikastola Altor o Porrontxo Jaiak.

Con Empark, firmamos un acuerdo de colaboración para que los comercios asociados regalen a sus clientes tickets de 30 minutos de aparcamiento gratuito en el parking de Atotxa.

En la actualidad somos 37 socios. Cifra que nos gustaría incrementar porque cuantos más seamos, mayor será la repercusión de nuestras actividades en el barrio.

Campaña de Navidad

30 comercios del barrio participan en la campaña de Navidad de HEGIAN, la Asociación de Comerciantes de Egia, integrada en Federación Gipuzkoako Merkatariak.


Este año queremos agradecer más que nunca a nuestros clientes que estén ahí.

Porque desde que abrimos de nuevo las persianas de nuestros establecimientos, hemos sentido su apoyo y queremos que continúe siendo así.

Por ello, en la Campaña de este año vamos a regalar una cesta por cada comercio participante y 10 vales de compra de 50 € cada uno.

Además, hemos producido un video en el que ponemos en valor la trayectoria de nuestros comercios: EGIAZKO MERKATARITZA. BIZILAGUNAK BABESTU

Campaña subvencionada por la Concejalía de Impulso Económico, Fomento San Sebastián y Gobierno Vasco.



Astiñene Baserria

az esan genuen: zubiaren ondoan dagoen baserria erortzen ari da: eta Gipuzkoako erriberako azken baserria. Udalak esan zigu ezin zutela ezer egin. Aurtengo martxoan epaitegiek baime-na eman diote Udalari baserrian jarduteko. Legez, Udalak konpondu behar du eta gero obra jabeei kobra. Oraindik ez dute ezer egin.

El caserío que está junto al puente está cayéndose. Por ley, el Ayuntamiento debe arreglarlo y luego cobrar la obra a los dueños. Todavía no han hecho nada.



Oinezkoentzako eremuak Espacios peatonales

Aspalditik gabiltza auzoan oinezkoen eremuak lortu nahian, bide de horretan aldarrikapena praktikara eraman nahian udalari proposamen bat aurkeztu genion aste batez kale batzuk oinezkoentzako guneak izan zitezen, udalak onartu zuen proposame-na eta gauatzeko lanean jarri ginen, talde desberdinak sortu ziren kalearen egokitze lanak, informazioa eta ekitaldiak antolatzeko, dena prest zegoen azaroaren azken astean Tejeria kalea eta inguruak aste batez oinezkoentzako eremua bilakatzeko baina Covid-19 gaitzaren ondorioz hartu ziren neurrien ondorioz ekimena udberrira atzeratzea erabaki genuen, egindako lana ez da alperrikakoa izan eta orain gogoz gaude udaberriari begira, ekimen honek helburu desberdinak ditu, alde batetik ariketa prikatikoa da auzoan gai honen inguruko hausnartzea, etorkizunean nolako auzoa nahi dugun pentsatzea eta azkenik auzo osoa jasoko duen mugikortasun plan bat osatzea.



El objetivo de conseguir espacios peatonales en el barrio viene desde hace mucho tiempo, con ese fin hemos decidido llevar a la práctica esta reivindicación y por eso hemos presentado una propuesta al Ayuntamiento para que algunas calles del barrio fueran peatonales durante una semana, la propuesta fue aceptada y para organizarlo nos pusimos en marcha, se crearon diferentes grupos de trabajo para acondicionar la calle, informar y realizar eventos, todo estaba listo para que en la última semana de noviembre la calle Tejeria y sus alrededores se convirtiesen en zona peatonal durante una semana, pero debido a la situación creada por el Covid-19 decidimos posponer la iniciativa hasta la primavera, esta iniciativa tiene diferentes objetivos, por un lado es un ejercicio práctico para reflexionar sobre este tema en el barrio, decidir que tipo de barrio queremos en el futuro y finalmente solicitar que se realice un plan de movilidad que contemple todo el barrio.

Kantu Jira Auzoan, 2020

Zailena egin genuen, martxan jarri, gero abiadura hartu eta mantendu genuen. Horrela ekin genion gure bigarren urtealdiari.

Gure ibilbideak, nahiz eta oraingoz laburra izan, dagoeneko utzi ditu bere urratsak: aurreko urtean bezala Gladysen omenaldian parte hartu genuen eta gure kantu-liburua badugu, gure whatxapeko taldearen bidez eskuragarri jartzen duguna.

Gero bidea okertu zitzagun. Lehenengo kolpe latza izan zen konfinamendua, halere, handik atera ondoren hainbat dendariei eskaini genien gure lehenengo saioa. Esker onak jaso genituen: Kantu Jiraz gain empatia elkartrukatze saioa izan zen.

Konfinamendua aipatu dut, hori eta hainbat mugen dena baldintzatu duenez guri ere kalte handia egin digu, baina ezin dugu ahaztu, guretzako garrantzitsuena, jarraitzeko gogoa eta alaitasuna badagoela.

Hicimos lo más difícil: ponerlo en marcha. Luego, el confinamiento nos dejó en casa. A pesar de todo, hicimos un homenaje a los comerciantes que han aguantado durante la pandemia.



Aitzarte 2020

Aitzarte Mendi Elkarteak antolatzen dituen txangoak pandemiarekin bertan behera utzi behar izan genituen, baina ekaínean berriro ere ekin genion mendira joateari, eta oso irteera ederrak egin izan ditugu aurten ere, tartean Arantzara asteburu pasa joan ginenean uztalean, besteak beste Mendaurrera igotzeko, zoragarria!!!

En junio recuperamos la actividad, después de la encerrona. Entre otras salidas, hicimos un fin de semana en Arantza, subiendo el Mendaur.



Egia Eskubaloia

Martxoaren 14an amaitu zen denboraldia Egia Eskubaloarentzat. Pandemiac eragindako itxieraren ondorioz, eskubaloia ere bere ateak itxi behar izan zituen. Ordu arte 17 talde eta 190 pertsonatik gora ziren Egia Eskubaloia taldean parte hartzen zuten neska mutilak. Ondoren, denboraldi berriari ekin genion, eta uneoro jartzen zitzakigun neurri berrietara moldatzen joan behar izan gara, ahal izan den heinean eskubaloiaz gozatzen jarraitu ahal izateko. Bazirudien era arruntean egindo geniola aurre denboraldiari, baina hori abuztuko ustea besterik ez zen izan. Ondoren murrizketak iritsi ziren berriro ere. Egun, emakumezkoen Euskal mailako senior taldeak eta gizonezkoen estatu mailako senior taldeak besterik ez dute entrenatzeko baimena, azken hauek haien txapelketari hasi eta lehiatzen ari diren bakarrak izanik. Maila eta adin guztiak lehiaketa denak eten egin dira, eta noiz eta zein neurri eta eratan berrabiatico diren oraindik ezjakina da. Hau horrela, gure desio eta esperantza neska mutil denek berriro ere eskubaloiaz gozatzeko aukera izan dezatenekoa da, iraganean Egiako kirolegian bizi zen ilusio eta giroa berreskuratu dadin! Gora Egia!

Hay 190 personas jugando en los distintos equipos. El virus, las medidas que se han tomado nos han dejado casi sin actividad. Solamente unos pocos tienen permiso para entrenar. Pero seguiremos.



Egiako Literatur Solasaldiak 2020-21

Egiako literatur solasaldiak, hilabetero egiten ditugu Kultur etxearen, azken asteazkenetan. Partaide guztiak artean proposatzen ditugu hurrengo urteko liburuak eta beti ere Literatur genero guztiak ikutzen saiatzen gara, ahalik eta autore garaikideenak kontuan hartuz.

Aurten hiru idazle hauek ekarriko ditugu gurera: Karmele Jaio (Aitaren etxea), Asel Lizarra-ga (Bioklik) eta Itziar Madina (Beste eguzkia)

Horretaz gain, abenduaren hiruan IRAKURRALDIA antolatzen dugu, poemak irakurri, eta aurten lehen aldiz, Plaza Berriko Azoka txikiarekin batera, abenduaren 21ean, EUSKARAZKO 2. ESKUKO LIBURU TRUKEA egingo dugu.

El último miércoles de cada mes comentamos un libro que hemos leído todos. Además hemos hecho una lectura pública de poesía y el dia 21 de diciembre, con el mercatx txikia, haremos un trueque de libros en euskara.



Azoka txikia, astelehenero 18:00-19:30, Plaza Berrin

Itxialdi garaian hasi zen Azoka txikia ernaltzen. Gertuko, garaiko eta kalitatezko produktuak erosteko aspaldiko nahia, eta ekoizleek produktua saltzen jarraitzeko beharra bat egitik sortu zen.

Hasieran, Igeldoko esnearekin eta Larreta esnekiekin hasi ginen Arranoko kalestuan salerosketa egiten. Hilabeteak aurrera joan ahala, plaza Berriko egonkortu zen eta ogia, arrautzak, barazkiak, eztia, ardoa... gehitu zitzakion.

Bide batez, Egiatarron sozializaziorako gune bat eratza lortu da. Bakardadera eramatzen gaituen egoera honen aurrean, auzotarrak ikusteko, hitz batzuk trukatzeko eta konspiratzeko aukera ere ematen digu astelehen arratsaldero Azoka txikiak.

Todos los lunes, de 18:00 a 19:30, Mercadillo en Plaza Berri. Productos de calidad, de aquí: leche, pan, huevos, miel, yogures, helados, horalizas...



Maizterren Sindikatua

Donostiako Egia kaleko 22. zenbakian, Sarebek pultsu bat du lau etxebizitzetako bizilagunekin. Erakunde horrek eta bere kudeatzaile nagusieta batek, Haya Reale Estate, ez dituzte alokairu-kontratuak berritu nahi. Izan ere, 12 auzokideri eragiten diete alokairu-kontratu horiek, eta gaur egungo kontratuak amaitu ahala, maizterrak botatzeko prozesuak bultzatzen hasi dira. Kudeatzaileak ez du elkarritzearik egin nahi izan negoziazioa irekitzeko eta, une honetan, 82 urteko emakume bat egoera irregularrean dago, alokairua ordaintzen ari da kontratu amaitu arren, eta ez daki noiz jasoko duen gutuna etxetik botatzeko datarekin.

Egoera horren aurrean, Donostialdeko Maizterren Sindikatua eta Egia Bizirik auzo-elkartea dei egiten diegu Donostiako eta, bereziki, Egiako herritar guztiei, Egia 22ko maizterrak babesteko eta defendatzeko mobilizazioekin bat egin dezaten, eta finantzera-erakunde horien jarduerari aurre egiteko. Sarebi exijitzen diogu kalitetutako pertsonen alokairu-kontratuak orain arteko baldintza beretan berritu ditzala. Bestetik, Donostiako Udalari Sarebekin harremanetan jartzera egiten diogu dei, hutsik dauden bi pisuak eta lokala Udalaren jabetzara pasa daitezzen, eta, etxebizitzak alokairu sozialeko eta lokala ekipamendu publikoko erabilera pasa daitezela aldarrikatzen dugu.

Gure auzoak eta gure bizitzak ez daudelako salgai

Elkarrekin edozer dugulako posible

Ez gaituzue botako!



El sindicato de inquilinos defiende los derechos de estos. Ahora, con los inquilinos del nº 22 de la calle Egia, defiende el derecho de estos a mantener su contrato de alquiler frente a Sareb.

Ostalaritzaren egoera 2020. urtean

Ez da urte erosoa izaten ari ostalaritzaren alorrean, lan baldintzak etengabe aldatzen joan dira Martxo-tik gaur arte eta baldintza horiei arazo ekonomikoak batuz, taberna ugari itxi behar izan dituzte.

Martxoaren erdialdean tabernak itxi zituzten, Maiatzaren erdialdean soilik terrazak irekitzeko baimena lortu zen eta geroztik ixti orduak eta aforoa aldatzen joan dira, inongo estabilitaterik jaso gabe.

Egia da gutxi batzuk arauak errespetatu ez dituztela, baina arazoa goikoengandik dator, esaterako, Azaroan bost langileren artean 1300 euro inguruko diru sarrerak izan ditugu, baina aldi berean 2000 euro ordaindu behar izan ditugu autonomoengatik (beste gastuak kontagabe). La-burbilduz, tabernak itxita dauden bitartean diru galera nabarmena izaten ari da.

Nahikoa da! Ostalaritzak beste tratu bat behar du. Debon artean lortuko dugu ostalariek bizi baldintza duinak edukitzea auzotarrek bizitza eduki dezaten!

En marzo nos cerraron. A partir de mayo, aperturas parciales, cambios continuos de normativa. En noviembre otra vez cerrados. Pero nosotros seguimos pagando cuotas de autónomos, gastos fijos... Los bares del barrio merecen otro trato.



Kulturarteko elkarbitzitza sustatuz EGIAN: Ongi Etorri proiektua, Familia Laguna Programa

Ongi etorri eskolara" proiektuak kulturartekotasuna lantzen du eskoletan. Horretarako, ikasle, irakasle eta familiekin egiten dugu lan. "FAMILIA-LAGUNA" programak, eskolan matrikulatzen diren jatorria beste herrialde batean duten familiak adin bereko seme-alabak dituzten familia euskaldun boluntarioekin harremanetan jartzen ditu. Familia hauek boluntario aurkezten dirá konfiantzazko harreman bat eraikitze aldera eta honek hainbat akonpainamendu egiteko beta ematen du: ikastetxeko informazioarena, auzoko eta udalerriko baliabideen eskaintzarena, familia etorri berriaren sare sozialak zabaltzearena eta haien euskarara hurbiltzearena, eskolan eta auzoan aukera-berdintasunaren bideratzaile gisa. Programa 2014an jarri zen martxan Aitor Ikastolan, eta gaur egun Donostia, Zarautz, Ordizia eta Andoaingo 16 ikastetxetan dago ezarrita. Arten, 32 familiek Egian eta beste ikastetxeetako 128 familiek parte hartzen dute bertan. Honako Familia hauek elkarrekin egiten dute lan aukerak sortzeko helburuarekin, gure auzoan bizikidetza eta inklusioa sustatzen duten kulturen arteko harreman-ereduak sortuz.

Ongi etorri eskolara" es un proyecto que trabaja la interculturalidad en la escuela con alumnado, profesorado y familias, así como en el ámbito comunitario. Este proyecto surgió en Egia, en Aitor Ikastola hace 6 años y fue ampliándose a otros barrios y a otros municipios de Guipúzcoa. A través del programa "FAMILIA- LAGUNA", pone en contacto a familias emigradas de otros países que se matriculan en la escuela con familias euskaldunas con hijos/as de la misma edad. Estas familias se prestan voluntarias para establecer una relación de cercanía, que permite realizar un acompañamiento en cuanto a: información de la escuela, recursos del barrio y del municipio, ampliación de las redes sociales de la familia recién llegada y acercamiento de estas familias al euskera como facilitador de igualdad de oportunidades en la escuela y en el barrio.

32 familias de Egia y 128 de Donostia, Zarautz, Andoain y Ordizia participan en el programa este curso. Estas familias, trabajan juntas para facilitar oportunidades, creando modelos de relación intercultural que fomentan la convivencia y la inclusión en nuestro barrio.



Desde Txoko Berri

La Asociación Txoko Berri, sita en la calle Río Deba 10 – 12, sigue siendo un lugar agradable y apacible, para personas de la tercera edad. Allí se dan actividades recreativas y culturales para ofrecer a los asociados una vida más activa.

Por las circunstancias actuales se han limitado mucho las actividades que suponen presencia física. Habrá que buscar otras formas que nos den algo de alegría. La convivencia es un arte y todos tenemos oportunidad de aprender y disfrutar de ella.. En estos tiempos de confusión y miedo, me acuerdo de una frase que aprendí: "El hombre es feliz gracias a la razón que nada teme".



Hau Egia da!

Dagoeneko ia bi urte pasa dira hainbat elkartea eragile ezberdinek auzoko kultur aniztasuna lantzen asmoz, Hau Egia Da! proiektua martxan jarri genuenetik.

Hasiera artan, hainbat pauso finkatu ziren. Lehena, auzoaren diagnostiko bat egitea. Bigarrena, diagnostiko horretatik ateratako ondorio eta erronka posiblak finkatzea. Egun, hirugarren pausoa ematen ari gara eta parte hartzeko prozesu bat martxan jarri dugu. Bertan, diagnostikoan parte hartutako kideek eta auzotar ezberdinek hartzen dute parte.

Prozesuan Emun taldekoak ditugu bidelagun eta prozesuaren dinamizazio lanetan laguntzen ari dira. Orain arte, kontraste saio ireki bat egin dugu eta bertan, diagnostikoan parte hartutako kideek eta auzoko eragile ezberdinek hartzeko dute parte. Saioaren helburuak honakoak izan dira: diagnostikoa aurkeztea, osatzea eta hemendik aurrerako erronkak lehenestea.

Twitter: <https://twitter.com/EgiaHau>

Instagram <https://www.instagram.com/haugegiada/>

El proyecto Hau Egia da, que trabaja sobre la pluralidad cultural en el barrio lleva dos años funcionando. Se ha hecho un diagnóstico de la situación y se ha contrastado con gente del barrio. Pronto se pondrán en marcha otras iniciativas.



Te invitamos a acudir a las reuniones de EGIA BIZIRIK en Ametzagaña 19

Si tienes ganas de echar una manita, te esperamos los primeros y terceros martes del mes a las 19:30 de la tarde



Egia bizirik
EGIAKO AUZO ELKARTEA

Zaintza Sarea

Martxoan etxeen konfinatu gintzutzen. Gogorra izan zen guztiontzat, baina oso egoera desberdinak bizi ziren etxe batean eta bestean. Bereziki sufritzen zuen jendea zegoen, bakarrik bizi zirenak, hurbileko seniderik ez zutenak, bat batean zeharo babesgabe aurkitu zirenak. Ezin erosketarik egin, ez botikara joan, ezin inorekin hitz egin... Etxean zeuden, bakarrik.

Horren aurrean, auzoko talde batek pentsatu zuen egoera horri aurre egin behar zitzaiola. Sare oso bat antolatu zen. Kartel bat argitaratu eta auzoko jendea parte hartzera gonbidatu zen. Laurogei pertsona baino gehiago aritu ziren boluntario. Laguntzeko prest zeuden.

Protokolo bat egin zen, jarduera horrek kutsatzeko arriskua ekar zezakeelako. Protokoloa zorrotza zen. Laguntzaileak ezin ziren arriskuko langileak izan, garbiketa- eta desinfekzio-neurriak zorrotz bete behar zituzten. Ezin zuten harreman zuzenik izan laguntzen zitzuten pertsonenkin.

Laguntzaileak eta jende anonimoa antolatu beharra zegoen. Kartel bat argitaratu, eta posta elektronikoz banatu zen. Bakoitzak bere etxeko inprimagailuan ateratzen zuen kartela. Konfinatuta geundez, nork bere atarian edo alboko atarian itsasten zuen. Auzoa kartelez bete zen.

WhatsApp hiru talde antolatu ziren, zonaldeka. Hiru lagunek telefono pertsonala eman zuten. Laguntza behar zuten pertsonak teléfono horretara deitu behar zuten, eta taldeko arduradunak boluntario bat bidaltzen zien. Proiektuak oso ondo funtzionatu zuen. Auzoko hoigeita hamar pertsona baino gehiago artatu zituen sareak.

Zer egin zuen administrazioak? Hasieran, laguntza-sarearen aurka agertu zen. Erokeria bat zela esan zuten, denok kutsatuko ginela, hainek, erakundeek, antolatuko zutela laguntza. Ohi bezala, ez ziren ezer antolatzeko gai izan. Eta, auzo askotan sortuz joan ziren laguntza-sareen errealtitatea ikusita, jarrera aldatu behar izan zuten. Elkarlaguntza eskaini zigutenean, sortzen ari ziren premieei buruzko informazioa emango zigutela.

Oso esperientzia aberatsa izan da. Jende arruntaren artean elkartsun-funts handi bat dagoela erakutsi digu. Pertsona asko eta asko gai dira laguntza emateko, beren osasuna arriskuan jarriz bada ere.

Auzo osasuntsua dugu

Mientras duro el confinamiento, una red de más de ochenta voluntarios y voluntarias ha ayudado a las personas que tenían problemas para hacer la compra, ir a la farmacia, etc. Ha sido una experiencia muy interesante, que ha demostrado que hay un enorme fondo de solidaridad en la gente más normal. Que muchas, muchas personas, son capaces de prestar ayuda arriesgando incluso su salud. Tenemos un barrio sano.

2020-2021 Egiako Zineforum

Egia Bizirik auzo elkartea antolatzen duen Zineforumak bere emanaldiak bertan behera utzi zituen martxotik udara arte, eta irailean berrekin zion proiektatu gabe geratu ziren filmak eskaintzeari. Azken hilabeteetan aretoaren edukiera berrogei lagunetara mugatuta dago, eta gertatu izan da ikusle guztiak sartu ezin izana. Ikasturtea aurreikusi moduan igarotzea espero dugu, aurten bai. Agenda arazoak eta covidaren aurkako neurriak direla eta, emanaldi eguna eta ordua aldatu dira: hilabeteko hirugarren ostegunean izango dira, arratsaldeko 18:45etan, pelikularen ondoren solasaldia egiteko astia eman dezan. Gonbidatuta zaudete!

El presente curso 2020-21, debido a problemas de agenda y a las restricciones por la covid, las proyecciones del Zineforum son los terceros jueves de cada mes a las 18:45, con un aforo limitado a 40 personas.

